

BATUZ: irabazi asmorik gabeko erakundeak

2026/03/26



Europar Batasunarekin
batera finantzatua
Cofinanciado por
la Union Europea

Zer da BATUZ? Zer elementuk osatzen dute?


BATUZ Bizkaiko Ogasunaren proiektu bat da, **Bizkaiko enpresa guztiei beren zerga-betebeharrak betetzen laguntzea eta kontrolatzea** helburu duena, enpresa horien izaera, tamaina eta jarduera-sektorea edozein izanik ere.

BATUZ hiru elementuk osatzen dute:

- TicketBAI software bermatzailea.
- Eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (EEEL) egoitza elektronikoan eramatea.
- Eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko enpresei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zirriborroak eskura jartzea, betebeharrak horiek betetzea errazteko.

BATUZ **nahitaezkoa** izango da 2024-01-1etik aurrera hasten diren aldietarako, modu mailakatuan, pertsona edo erakunde motaren eta egiten duen jarduera nagusiaren arabera. **Irabazi asmorik gabeko erakundeak 2026ko urtarrilaren 1ean hasi beharko dira Batuzekin.**

Proiektuari buruzko informazio guztia www.batuz.eus webgunean kontsulta daiteke.



The screenshot shows the Bizkaia batuz website interface. At the top left is the logo. To the right is the European Union flag and text: "Europar Batasunarekin batera finantzatua Cofinanciado por la Union Europea". Further right is "HARREMANETARAKO ES". Below this is a navigation menu with items: "ARAUTEGIA", "BERRIKUNTZAK", "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA", "OHIKO GALDERAK", "SOFTWARE ERREGISTROA", "EGIN ZURE FAKTURA", "EEL", "BEHIN BETIKO EZARTZEA", "AITORPENEN ZIRIBORROAK", and "EGIAZTATU ZURE FAKTURA". The "BATUZ" item is highlighted in red. Below the menu, the breadcrumb "Bizkaia.eus > Hasiera" is visible. The main content area features the "BATUZ" title in large red letters, followed by the subtitle "Informazio teknikoa eta arautegia". A large video player is centered, showing a hand holding a QR code being scanned by a device, with the text "EGIN QR-AREKIN" overlaid in large teal letters and a play button icon.

Zergei buruzko kontsultak hona zuzendu daitezke:
batuz.zergak@bizkaia.eus

Eta kontsulta informatikoak:
programak@bizkaia.eus.

ZER DA BATUZ?

BATUZ Bizkaiko arautegia bete behar duten enpresa eta autonomoen tributazioa kontrolatzeko eta laguntzeko estrategia da (enpresa eta autonomo guztiena, tamaina gorabehera).

BATUZek hiru osagai dauzka:

- > **TICKETBAI FAKTURAZIO - SOFTWARE BERMATZAILEA**
Fakturazio-sistema informatikoa da, egindako salmenta-eragiketa guztien aitortpena ziurtatzeko




Zer da TicketBAI?

TICKETBAI

Salmenta eragiketa guztien
aitorpena

Nola funtzionatzen du TicketBAIk?



Zer dauka TicketBAI faktura batek?

Adibidez enpresa

Berrikuspena kalea, 1

48999 Bilbo

I.F.Z.: A23456789

Faktura ~~erraztua~~

Faktura zk: S123/123456

Emate-data: 2025-12-12 9:28:02

Kontzeptua	Kopurua	Prezioa	Zenbatekoa
------------	---------	---------	------------

Liburua	1	15	15
---------	---	----	----

ZENBATEKOA GUZTIRA (BEZa barne) 15€

Tasa

4 %

TBAI-12345678Z-161219-btFpwP8dcLGAF-054



Fakturak edo euskarri elektronikoko edo paperezko beste dokumentu batek dokumentuaren identifikazio-kode bat eta QR kode bat izan beharko ditu.
Fakturazio softwareak informazio hori igorlearen EEELaren emandako fakturen kapitulura automatikoki bidaliko du.

TicketBAI identifikatzailea:

Igorlearen IFZ– Jaulkipen-data – HASHaren lehen 13 posizioak – Kontrol-kodea.

QR kodea:

Interneteko helbidea – TicketBAI identifikatzailea – Fakturaren seriea – Fakturaren zenbakia – Fakturaren zenbateko osoa.

Nola bete TicketBAI sistema?

Jaulkitako fakturretan **TicketBAI betetzeko**, honako hauek erabil daitezke (modu bateragarrian):

- TicketBAI software bermatzailearen erregistroan inskribatuta dagoen softwarea (www.batuz.eus/eu/software--erregistroa).
- Edo Bizkaiko Foru Aldundiaren **Egin zure faktura** doako aplikazio informatikoa (<https://www.batuz.eus/eu/egin-zure-faktura>).

Egin zure faktura programari dagokionez, dibulgazio-eduki hauek daude eskuragarri:

- Bideo gida erraza (gidak.bizkaia.eus/content/VIDEOS/BATUZ/EUS_Haztufactura.mp4).
- Aplikazioaren eskuliburua (https://www.batuz.eus/fitxategiak/batuz/ticketbai/egin_zure_faktura_b_1_6_2.pdf).

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – TicketBAIren salbuestea

(*) Gainera, **TicketBAI salbuestea** eska dezakete **noizbehinkako garrantzi txikiko jarduera ekonomikoetarako.**

Baldintzak:

- Noizbehinkako jarduerak (urtean 15 egun baino gutxiago) izatea.
- Garrantzi txikiko jarduerak (urtean 50.000 eurotik beherako diru-sarrerak sortzen dituztenak) izatea.
- Kultur zabalkundearekin, euskararen sustapenarekin, kirolarekin, gazteriarekin, garapenerako lankidetzarekin, kultur aniztasunarekin, gizarteratzearekin, zahartzearekin, berdintasunarekin eta martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 31. artikuluan aurreikusitako beste batzuekin lotutako ekitaldien barruan egitea jarduera horiek.
- Jarduera horien onurak, egonez gero, erakundearen helburu espezifikoari eusteko erabili behar dira.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – TicketBAIren salbuestea

(*) Gainera, **TicketBAI salbuestea** eska dezakete **noizbehinkako garrantzi txikiko jarduera ekonomikoetarako**.

Eskabide-orria Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri.

(<https://appstac.ebizkaia.eus/eu/-fitxategi-prozedura?procedimiento=1787>).

Izapideak

Batuz - TicketBAI betebeharretatik salbuesteko eskaera: irabazteko asmorik gabeko erakundeen garrantzi txikiko noizbehinkako jarduerengatik

✓ Irekita

Joan izapidearen informaziora

Izapidetu

Aurkezteko moduak

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – TicketBAIren salbuestea

(*) Gainera, TicketBAI salbuestea eska dezakete noizbehinkako garrantzi txikiko jarduera ekonomikoetarako.

- Eskabidean erantzukizunpeko adierazpenaren laukitxo baino ez da markatu behar:

Batuz - TicketBAI betebeharretatik salbuesteko baimena prozeduraren Batuz - TicketBAI betebeharretatik salbuesteko eskaera: irabazteko asmorik gabeko erakundeen garrantzi txikiko noizbehinkako jarduerengatik inprimakia

1 Eskaeraren datuak 2 Bidalketa

Datu orokorrak ✓
Erantzukizunpeko adierazpena

Eskakizuna eta erantzukizunpeko adierazpena

Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 47 bis artikulua 4. ataleko bigarren paragrafoko b) letrak ezartzen duenez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera eragiketak salbuetsiak edo partzialki salbuetsiak dituzten erakundeak, bai eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatzekoa zaien zerga-arabide bereziari abxikitako erakundeak ere (irabazteko asmorik gabeko entitateen eta Mezenasgorako Zerga-pizgarrien zerga arabideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren II. Tituluan arautua), salbuetsita egongo dira Zergaren Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. atalean ezarritako betebeharrak betetzetik, baldintza hauek betetzen dituen jarduera ekonomikoa osatzen duten eragiketei dagokienez.

Erantzukizunpeko adierazpena


- Ondorioz, formulario honen bidez, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 47 bis artikulua 4. ataleko bigarren paragrafoko b) letran aurreikusitako salbuestea eskatzen dut eta erantzukizunpeko aitortzen dut zerrendatutako baldintzak betetzen ditudala. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak baimena emateko. *

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – TicketBAIren salbuestea

(*) **TicketBAI salbuestea** eska dezakete **noizbehinkako garrantzi txikiko jarduera ekonomikoetarako.**

- Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren erabaki bidez ematen da salbuespena.
- Salbuespenak indarrean jarraituko du baldintzak betetzen diren bitartean.
- [Martxoaren 18ko Foru Dekretuak](#), zeinaren bidez informazio-betebeharren arloan aldatzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, hau ezartzen du:
*Lau baldintzetako bat betetzen ez den zergaldian, salbuesteak indarra izateari utziko dio. Hala ere, **salbuespen hori hurrengo zergalditik aurrera eskatu ahal izango da berriro.***
- TicketBAIren salbuespena da, baina ez eragiketa horiek EEELan idazteko betebeharrarena: emandako fakturen kapituluan TicketBAI gabe egindako eragiketen laburpen-idazpenak egin daitezke.

Zer da eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (EEEL)?



EEEL

- Emandako fakturak
- Jasotako fakturak
- Zerga-garrantzia
- duen bestelako
- informazioa

Kontuan hartu beharrekoa

- Ez da izena eman behar sartu ahal izateko: EEEL aplikazioa irekita dago: [EEEL - BATUZ - Bizkaia.eus](https://www.eeel-batuz.bizkaia.eus)
- EEELra sartzeko, Interneteko konexioa eta erakundea identifikatzeko ziurtagiri elektronikoa behar dira (normalean, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria izaten da). Ziurtagiri hauek ematen dituzten enpresetako batzuk Izenpe edo FNMT dira: [Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia](https://www.bizkaiko-foru-aldundia.es)
- Erakundearen ziurtagiria eskuratu ondoren, hainbat pertsona gaituzke EEELra sartzeko (borondatezko ordezkari gisa, adibidez, pertsona fisikoaren BAK propioa erabiliz erakundearen EEELra sartzeko).

Nola eraman eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (EEEL)?

EEELan zergadun bakoitzaren eragiketa ekonomikoak erregistratzen dira, kapitulu desberdinetan banatuta. Liburua eramateko bi modu daude (**bateragarriak** dira):

- Bizkaiko Ogasunak argitaratutako eskakizunetara egokitutako softwareekin.
- Edo **Bizkaiko Foru Aldundiaren aplikazio informatikoarekin** (<https://www.batuz.eus/eu/eeel>).

Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen kasuan, EEELa eramateak **347 ereduaren** aurkezpena ordeztzen du.

Zein da EEEL-240ren egitura?

uruz

HARREMANA ES

ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUA

KAPITULUAK

TRESNAK

ERABILGARRITASUNAK

?

i

Bizkaia.eus > Hasiera > EEEL (240 Eredua)



2026 ▼

Kapitulua

Oharren kontadorea erakutsi



Emandako fakturak



Jasotako fakturak



Ondasunak



Batasunaren barruko zenbait eragiketa



Zerga garrantzia duen bestelako informazioa




Kontabilitate mugimenduak

INFORMAZIO GEHIGARRIA: KOBRANTZAK ETA ORDAINKETAK



Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – DIRU-SARRERAK



(*) Salbuespena eskatu behar da

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak - DIRU-SARRERAK

IGEentzako LABURPENA:

- Loteria (dohaintza): ez da TicketBAI bete behar, ezta EEELan idatzi ere.
- Bazkideen, tailerren eta kirol-jardueren kuota kobratzea:
 - **Familia bakoitzeko urtean 1.000 euro baino gehiago ez badira, EZ dute TicketBAI bete behar, ezta EEELn erregistratu ere.**
 - **Familia bakoitzeko urtean 1.000 euro baino gehiago izanez gero, EZ dute TicketBAIrekin bete behar, baina EEELan erregistratuko lirateke, zerga-garrantzia duen beste informazio baten kapituluan (urteko ohar bakarra, zenbateko globalarekin eta pertsonaren identifikazioarekin).**
- IGEak **kanpoko zerbitzuak edo produktuak** ordaintzeko biltzen duen dirua (txangoetarako autobusak, eskolako argazkiak, antzerkia, etab.) ez da TicketBAI fakturretan islatzen, eta ez da EEELan idatzi behar. IGEak egin beharko duena hornitzaileengandik jasotako fakturak erregistratzea da (hornitzaile bakoitzak urtean 1.000 euro baino gehiago jasotzen baditu soilik), zerga-garrantzia duen beste informazio baten kapituluan.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak - DIRU-SARRERAK

IGEentzako LABURPENA:

- IGEak ikastetxeari emateko biltzen duen dirua (ikastetxeak berak hornitzaile batekin kontratatu dezan) ez du TicketBAIrekin bete behar eta ez da IGEaren EEELan idatzi behar (jasotako faktura ikastetxearena da, ez IGEarena).
- BEZa daramaten eragiketak: merchandising salmenta, edari/janari salmenta. Normalean, garrantzi txikiko noizbehinkako jarduera izateko baldintzak beteko ditu, eta, beraz, EZ da TicketBAI bete behar, baina eragiketen laburpen-idazpenak egin beharko dira (salmentak egiten diren eguneko ohar bat).

[295- Nola erregistratzen dituzte salmentak EEELan irabazi-asmorik gabeko entitateek, salmentak TicketBAItik salbuetsita daudenean garrantzi txikiko noizbehinkako jarduerak izateagatik \(laburpen-idazpena\)?](#)

TicketBAItik salbuetsitako eragiketen laburpen-idazpenaren erregistroa

Emandako faktura berriaren alta

Software bermatzailearekin egindako fakturak

Software bermatzailerik gabe egindako fakturak

BEZ erregimenaren gakoa *

01 - Erregimen orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu



Fakturaren seriea

LABURPENA

Fakturaren zenbakia *

1

Faktura osoa

Faktura erraztua

Bidaiarien BEZ itzulpena

Amaierako fakturaren
zenbakia

Laburpen idazpena

312

Emate-data *

2025/11/19



Eragiketaren data ?

uuuu/hh/ee



Faktura erraztuaren ordezk egindako faktura

Faktura zuzentzailea

Eragiketaren deskribapena *

AZAROAREN 19KO SALMENTAK

TicketBAItik salbuetsitako eragiketen laburpen-idazpenaren erregistroa

Fakturaren xehakapena

Zergari lotutakoa [?]
 Salbuetsita [?]
 Kargapean ez [?]
 Subjektu pasiboaren inbertsioa [?]

Zerga-oinarria * (A)
 Zerga-tasa *
 Zergaren kuota (B)

Baliokidetasun-errekarguaren tasa
 Baliokidetasun-errekarguaren kuota (C)
 Zenbateko guztia (A)+(B)+(C)

Kuotak eskuz sartu

[Gorde](#)


Mota	Zerga-oinarria	Zerga-tasa	Zergaren kuota	Baliokidetasun-e...	Baliokidetasun-errekarguaren kuota
Zergari lotutakoa	1.300,00 €	%10	130,00 €		

Fakturaren guztirako zenbatekoa

Sartu eskuz

Jasandako atxikipena

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen berezitasunak – ORDAINKETAK ETA JASOTAKO FAKTURAK



Jasotako faktura baten erregistroa

Jasotako faktura berriaren alta

Igorlearen datuak (hornitzailea)

Erakutsi igorleen hautatzailea (hornitzaileak)

Identifikatzailea *

IFZ

Abizenak eta izena edo sozietatearen izena *

ERAKUNDE S.L

Faktura mota *

F1 - Hartzailea identifikatzen duen faktura

Gakoa *

01 - Erregimen orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu

Fakturaren seriea

A

Fakturaren zenbakia *

1

Emate-data *

2025/11/19

Jasotze-data *

2025/11/19

Eragiketaren data

uuuu/hh/ee

Eragiketaren deskribapena *

Zebitzuak

Jasotako faktura baten erregistroa

BEZ datuak

Ondasun arruntan erosketak - Gastuak - Inbertsio ondasunak eskuratzea*

Ondasun arruntan erosketa Gastuak Inbertsio-ondasunen eskuraketa

Subjektu pasiboaren inbertsioa*

Ez Bai

BEZ zerga oinarria *

2.000,00 (A)

Zerga-tasa

%21

Jasandako BEZ kuota

420,00 (B)

BEZ kuota kengarria *

Kuotak eskuz sartu

Zenbateko guztia (A) + (B)

2.420,00

+ Gehitu

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen azpi-kapitulu berria

batuz

HARREMANA ES

ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUA

KAPITULUAK

TRESNAK

ERABILGARRITASUNAK



Bizkaia.eus > Hasiera > EEEL (240 Eredua)



2026 ▼

Kapituluak

Oharren kontadorea erakutsi



Emandako fakturak



Jasotako fakturak



Ondasunak



Batasunaren barruko zenbait eragiketa



Zerga garrantzia duen bestelako informazioa



Kontabilitate mugimenduak

INFORMAZIO GEHIGARRIA: KOBRANTZAK ETA ORDAINKETAK



Irabazi-asmorik gabeko erakundeen azpi-kapitulu berria

[← Itzuli kapituluaren zerrendara](#)

Zerga garrantzia duen bestelako informazioaren kapitulua

[Aldatu kapitulua](#)

Bilaketa

Eskudirutan emandako 6.000 eurotik gorako zenbatekoak	Aseguru-eragiketak	Bidaia-agentziak
Erakunde publikoak	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	

[+ Gehitu 6.000 eurotik gorako beste zenbateko bat, eskudirutan.](#)

Aitortuaren ID

Aitortua - Abizenak eta izena edo sozietatearen izena

Egoera

[Bilatu](#)

Azpi-kapitulu hau ez dago oraindik EEELan erabilgarri, 2026ko urte amaieran egongo da.

Nola eraman eragiketa ekonomikoen erregistro liburua (EEEL)?

- Irabazi-asmorik gabeko erakundeek **EZ** dituzte EEELan jasoko jasotako diru-laguntzak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak **EZ** daude behartuta EEELaren kontabilitate-mugimenduen kapitulua betetzera.
- EEELak **347** eredua ordeztzen du.
- EEELaren informazioarekin BEZ, PFEZ eta SZren **zirriborroak** sortuko dira.
- EEELak **EZ du ordeztzen BEZaren eta SZaren autolikidazioen** aurkezpena.

¿En qué plazo se deben realizar las anotaciones en el LROE?

EMANDAKO FAKTUREN KAPITULUA:

- **Zein EEELtan idatzi behar dira?** Fakturaren igorpen-dataren EEELan idatzi behar dira.
- **Zein epetan idatzi behar dira?** Fakturaren eragiketa-datari dagokion BEZaren likidazio-aldia (31-1, 25-4, 25-7, 25-10) amaitu baino lehen, eta data hori ez badu, fakturaren jaulkipen-datari dagokiona.

JASOTAKO FAKTUREN KAPITULUA:

- **Zein EEELtan idatzi behar dira?** Faktura jaso den dataren EEELan idatzi behar dira.
- **Zein epetan idatzi behar dira?** Faktura jaso zen egunari dagokion BEZaren (31-1, 25-4, 25-7, 25-10) likidazio-aldia amaitu baino lehen.

o Jasotze-data erabiltzaileak jarriko du. Ezin da izan jasotako faktura egin den eguna baino lehenagokoa.

ZERGA GARRANTZIA DUEN BESTELAKO INFORMAZIOA KAPITULUA:

- Eragiketak egiten diren urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra.

Zer aitorten-zirriborro egiten ditu Ogasunak?

BEZ, SOZIETATE ETA ERRENTAREN ZIRRIBORROAK EGITEA

Bizkaiko Foru Ogasunak
BEZaren, sozietateen eta
errentaren aitortenaren
zirriborroak prestatuko dizkie
autonomoei eta enpresei.

Zer aitorten-zirriborro egiten ditu Ogasunak?

- **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ):**

- Renta 2020 proiektuak zirriborroak eskaini zizkien zergadun guztiei.
- Batuz proiektuko pertsona fisikoen eragiketen erregistro-liburuko datuetan oinarrituta egindako errentaren lehen zirriborroa 2023an eskaini zen, 2022ko errenta aurkeztean.

- **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ):**

2023ko urritik aurrera, BEZaren zirriborroak eskaintzen dira, zergadunen EEELan jasotako informaziotik abiatuta. Zirriborroaren eskaera-prozesua Batuz webgunean dagoen bideoan azaltzen da (“BEZaren zirriborroak” atalean): [Aitorpenen zirriborroak - BATUZ - Bizkaia.eus](https://www.bizkaia.eus/batuz/aitorpenen-zirriborroak)

- **Sozietateen gaineko Zerga (SZ):**

2026ko uztailetik aurrera, SZren zirriborroak eskainiko dira Bizkaiko Foru Ogasunaren informaziotik abiatuta, eta, bereziki, EEELaren kontabilitate-mugimenduen kapituluko informaziotik abiatuta.

Eskerrik asko!



Bizkaia

batuz